



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

UDAL PLENOA
Bilkura arrunta

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2017/03/07	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 - 20:00	

BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: María Ubarretxena Cid (EAJ-PNV)

Zinegotziak: Ibon Arrupe Aldecocca (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Ander Garay Zabaleta (EAJ-PNV)
Amaia Ceciaga Garmendia (EAJ-PNV)
Juan Karlos Garitano Ezkurra (EAJ-PNV)
Amaia Azpiazu Aramburu (EAJ-PNV)
Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJ-PNV)
Eneko Barberena Mondragon (EH BILDU)
Amaia Larrañaga Galdos (EH BILDU)
Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga (EH BILDU)
Maialen Zabaleta Madinabeitia (EH BILDU)
Jose Luis Encinas Jose (EH BILDU)
Itxaro Artola Lizarralde (EH BILDU)
Urki Larrea Ibabe (EH BILDU)
Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE)
Victoriano Fuentes Noguera (PSE-EE)
Igor Urizar Murgoitio (Baleike)
Eva Abuin Bideburu (Baleike)
Juan Luis Merino Sanabria (Irabazi Arrasate)

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

BILDU EZ DIREN UDALKIDEAK: Anabel Legaz Canflanca (PSE-EE)

BERTARATZE PSE-EE udal taldeko zinegotziek, Oscar García Horrillo eta Victoriano



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

ETA IRTEERAK:

Fuentes Nogueira jaunak, bilkura utzi dute, publikoari dagozkion eserleketan eseriz, 19.10etan eta 19.16etan bertaratu dira. Bilkura uztea gertatu da gai-zerrendako 11. Puntua irakurtzeko momentuan (eztabaida hasi aurretik) eta bertaratzea gertatu da puntu honetako bozketaren ondoren. Beraz, bi zinegotzi hauek ez dute parte hartu puntu honi dagokion eztabaida eta bozketan.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria): Arratsaldeon denoi, gaurko plenoari hasiera ematera goaz.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

2017ko otsailaren 7ko bilkurako akta, aho batez, onartzen dira.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Aktaren gainean interbentziorik badago? Juan Luis.

J.L MERINO (IRABAZI):

El acta, espera un momento, el acta en 7 en castellano en la página no sé qué página pone con el tema de la moción del Sahara, no sé qué página es que no está identificada. Le contesté a Eneko no se es que tenemos que buscar la página para que lo podamos leer. Le contesté a Eneko diciéndole, Eneko me dijo a mi algo de sobre el derecho de autodeterminación y todo esto ¿no? y entonces yo le conteste ¿no? y le decíamos que el Partido Comunista de Euskadi reconoce plenamente la existencia de la nacionalidad vasca expresada en la comunidad del idioma, territorio, homogeneidad étnica, cultura y sobre todo de la voluntad decidida de la mayoría del país que lucha por sus derechos nacionales frente al imperialismo español que los sojuzga y pone que los ocupa, sojuzgar es dominar o someter a alguien con violencia y ocupa es otra cosa.

No pone la página lo buscáis es en el punto 8, en la moción en el punto 8 pone ocupa y tiene que ser sojuzga

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bueno jasotzen dugu egingo da aldaketa beste norbaitek beste zeozer badauka? Bueno ba orduan aktaren onarpena bozkatzera pasatuko gara.

Aho batez onartua geratu da.

2.- INFORMATZEA ETA BERRESTEA DEKRETUA 8/2017 ZK. ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTZOAN AGERTZEKO, MARCELINO



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

AMAZARRAIN KORTABARRIA JAUNAK JARRIA, BEHIN BETIKO ONARTZEAREN AURKA AE 78.- ZABALETA (LEHEN AE 104) EREMUAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN LEHEN ALDAKETAREN AGIRI BERRIA. (2017HJKA0001)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasunaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

IKUSIZ Administrazioarekiko Auzi Errekurtsua, 8/2017 zk.koa, jarri duela MARCELINO AMOZARRAIN KORTABARRIA jaunak EAE-KO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIKO ADMINISTRATIOAREKIKO AUZIEN SALAN, osoko bilkurak 2016ko azaroaren 29an hartu zuen akordioaren aurka, zeinak onartu baitzuen behin betiko AE 78.- ZABALETA (LEHEN AE 104) EREMUAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN LEHEN ALDAKETAREN agiri berria, xehetasun batzuekin.

IKUSIZ Korporazio honek obligazioa duela legezko egintzak burutzeko bere ondasunak eta eskubideak defendatzeko, eta osoko bilkurari dagokionez egintza judizialak eta administratiboak erabiltzea bere eskumeneko gaitan.

IKUSIZ, aurrekoa gorabehera, urgentzietan alkateari dagokiola egintza judizialak eta administratiboak erabiltzea osoko bilkuraren eskumenei buruz, eta horren berri ematea berresteko egiten den lehen bilkuran.

IKUSIZ, aurreko ahalmenaren arabera, N17/00208 Alkatearen Dekretuaren bidez, 2017ko otsailaren 9koa, erabaki zela udala agertzea 8/2017 Administrazioarekiko Auzi Errekurtsuan, goian aipatua, informatzeko Korporazioaren hurrengo osoko bilkurari Dekretu horren edukiaz, hura berresteko.

KONTUAN IZANIK beharrezkoa dela kasu honetan berrestea alkatearen errekurtsua, inpugnatutako akordioa osoko bilkuraren eskumena delako.

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasunaren informazio batzorde honek hauxe proposatzen du:

LEHENENGOA.- Osoko bilkura jakinaren gainean jartzea goian aipatutako gorabeheraz.

BIGARRENA.- Berrestea N17/00208 alkatearen dekretua, 2017ko otsailaren 9koa.

HIRUGARRENA.- Akordio hau hartu izanaren berri ematea EAeko JANi.

3.-GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ARRASATEKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEA, "ARRASATEKO BEDOÑAKO GI-627-34 LOTUNEAREN BIDE-ADARRETAN BIRIBILGUNEA EGITEKO PROIEKTUA"REN OBRAK



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

GAUZATU ETA FINANTZATZEKO, ETA AIPATUTAKO LOTUNEA BERE KONFIGURAZIO BERRIAN MANTENU ETA USTIATZEKO. (2017HITZ0001)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasunaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

IKUSIRIK errepide eta bideen alorreko eskumena lurralde historikoetako foru organoei dagokiela, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.34 artikulua, Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bere lurralde historikoen foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.A.8) artikuluaekin loturan, xedatutakoa betez.

IKUSIRIK 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak, 25.2.d artikuluan xedatutakoaren arabera, udal eskumenekoak direla, besteak beste, bide azpiegiturak eta udal titulartasuneko beste ekipamendu batzuk.

Eskumen eredu horiek osatu eta garatu ditu eskumen propio gisa 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. artikuluan.

IKUSIRIK 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubidearenak, 47. artikuluan xedatzen duenez, administrazio publikoek administrazio arteko hitzarmenak egin ditzakete eskumen propioaz baliatzeko.

IKUSIRIK Bedoñako GI-627-34 lotunea Arrasateko herrigunearen hego-ekialdean dagoela.

Lotune erdia da egia esan, izan ere, bi bide-adar bakarrik ditu, iparraldeko noranzkoan, bai Bergararik eta baita Bergararako noranzkoan ere. Hala ere, errepideak mendebaldean bidegurutze konplexu bat du, bost bide-adar biltzen dituena: lotuneak berezkoak dituenak gehi bi industrialdeetarakoak.

IKUSIRIK mugimendu handia duen toki hori oso txikia dela eta oso zaila dela hori guztia modu egokian antolatzea; egungo egoera oso kaotikoa dela, soilik bide nagusien ertzak baitaude margotuta.

Gainera, Lana pabiloiaren parean oinezkoen pasabide bat dago, espalo estu eta eskas bat duena hegoaldeko aldean. Hori guztia gutxi balitz, hegoaldetik bidegurutzera iritsi baino pixka bat lehenago amaitzen den bizikleta bide bat ere bada, Udal titulartasuneko. Etorkizun hurbil batean, Udalak bizikleta-bide horri herrigunera, iparralderantz, jarraipena ematea aurreikusten du. Ondorioz, pasabide ziurragoa egin beharko da erabiltzaileentzat, bai oinezkoentzat bai txirrindularientzat.

IKUSIRIK erakundeen arteko lankidetzaren esparruan, Bide Azpiegiturarako Departamentuak, "LKS Ingenieria, S.Coop." ingeniaritza enpresaren bidez, proiektu hau idatzi duela: "Arrasateko Bedoñako GI-627-34 lotunearen bide-adarretan biribilgunea egiteko proiektua (3-I-39/2016)"



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

Motor gabeko joan-etorriak segurtasunez egin daitezten, proiektuak aipaturiko bidegurutze hori biribilgune bihurtuko du, oraingo espaloiak handituko ditu eta oinezkoen eta txirrindularien arteko gurutzaketak antolatuko ditu.

Obren lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 607.543,35 euro da guztira, eta 5 hilabeteko epean egitea aurreikusten da.

IKUSIRIK bai Arrasateko Udalak bai Gipuzkoako Foru Aldundiak ezagutzen dutela proiektu horren edukia eta ados daudela bertako zehaztasunekin.

Aurrekoaz gain, bi erakunde horiek banatu ezin daitekeen jarduketa dela irizten dute, izan ere, biribilgunea espaloirik gabe egiteak ez du zentzurik eta, halaber, horiek ezin dira egin biribilgunea eraiki gabe.

IKUSIRIK, bidegurutzea aipatutako lan horiekin antolatu ondoren, Takolo biribilgunera jaisten den bide adarra herri mailan erabiliko dela soilik, ez duela udalerriaz gaindiko interesik izango, eta beraz, herri-bidea izango dela, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratuak, 2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emaileaz onartuak, 11.5 artikuluan xedatzen duen moduan.

Bestalde, 11.6 artikulua ezartzen duenez, jabetza Udalari aldatzen zaionean, Foru Aldundiak ematen duen errepideak edo errepide zatiak egoera onean egon behar du.

KONTUTAN IZANIK Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak partekatzen duten xede horrek dagokion hitzarmen sinatzera bultzatu dituela, bertan, proiektua tramitatzeko, gauzatzeko, finantzatzeko eta gero mantentzeko behar diren konpromisoak zehaztuko direlarik.

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordeak hauxe proposatu du:

I.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Arrasateko Udalaren arteko hitzarmena sinatzea ontzat ematea, *"Arrasateko Bedoñako GI-627-34 lotunearen bide-adarretan biribilgunea egiteko proiektua"*ren obrak gauzatu eta finantzatzeko, eta aipatutako lotunea bere konfigurazio berrian mantenu eta ustiatzeko, jarraian zehazten diren xedapenen arabera:

"Lehena.- Xedea.

1.1. Hitzarmen honen xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arrasateko Udalak bere gain hartuko dituzten konpromisoak zehaztea proiektu honetan jasotzen diren lanak finantzatzeko, gauzatzeko eta gero mantentzeko: "Arrasateko Bedoñako GI-627-34 lotuneko bide-adarretan biribilgunea egiteko proiektua (3-I-39/2016)"

Bigarrena.- Tramitazioa

2.1. Gipuzkoako Foru Aldundiak "Arrasateko Bedoñako GI-627-34 lotunearen bide-adarretan biribilgunea egiteko proiektua (3-I-39/2016)" tramitatuko du, onartu arte, hala agintzen baitu Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratuak, 2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

Dekretu Arau-emaileaz onartuak, Aldundia bera arduratuko da, halaber, beste erakunde batzuen baimenak eskuratzeaz.

Hirugarrena.- Lurzoruaren erabilgarritasuna

3.1. Lanak egiteko beharrezkoak diren lurzoruak titulartasun publikodunak dira guztiak, bai foru titulartasuneko sistema orokorrari atxikitako lurzoruak, bai udal titulartasuneko bide eta espaloiei atxikitakoak.

3.2. Arrasateko Udalak konpromisoa hartzen du obrak egiteko beharrezkoak diren Udal titulartasuneko lursailak Foru Aldundiaren eskura jartzeko, obrak lizitatu baino lehen, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bateginak 126. eta 229. artikuluan xedatutako ondorioetarako.

Laugarrena.- Obrak gauzatzea

4.1. Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu hau kontratatzeko eta gauzatzeko konpromisoa hartzen du: "Arrasateko Bedoñako GI-627-34 lotunearen bide-adarretan biribilgunea egiteko proiektua (3-I-39/2016)". Eta lanak 2017. urtean hasiko dira.

4.2. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du obren zuzendaritza teknikoa, zuzenean edo hirugarren batekin egindako kontratuaren bidez.

4.3. Gipuzkoako Foru Aldundiak lan hau egiteko konpromisoa hartuko du: Takoloko biribilgunera doan gainontzeko bide adarraren zorua eta hegoaldeko espaloia konpontzea, egoera onean gera dadin.

Bosgarrena.- Obren finantziazioa

5.1. Arrasateko Udalak 200.000 (berrehun mila euro) euro jarriko ditu proiektuak jasotzen dituen obrak ordaintzeko, eta ez du parte hartuko desbiderapenetan, ez gorakoetan ez beherakoetan, horrelakorik gertatuz gero.

5.2. Zenbateko hori kontratua formalizatzen denetik 30 egun naturalen epean ordainduko da, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere momentuan zehaztuko duen kontuan ordaindu ere.

5.3. Gipuzkoako Foru Aldundiak gainerakoa finantzatuko du, gerta litezkeen desbiderapenak barne.

5.4. Bi erakundeek aurrekontuko hornidurak egiteko konpromisoa hartzen dute, hitzarmen honen bidez hartutako finantziazio konpromisoei aurre egiteko adinakoak. Horretarako, obrak lizitatu baino lehen, Arrasateko Udalak, aurreko ataletan aipatutako epean bere hitza betetzeko behar adinako kreditu egokia duela ziurtatu beharko du.

Seigarrena.- Titulartasuna, artapena eta ustiapena

6.1. Obrak amaitu eta laugarren xedapeneko konpromisoak bete ondoren, hori horrela dela jakinaraziko dio hori Foru Aldundiak Udalari ziurtagiri baten bidez. Udalak, ziurtagiri hori jasotzen duenetik aurrera, bere gain hartuko ditu elementu hauen titulartasuna, mantentzea eta ustiapena: espaloiak zintarri eta guzti, kutxatila, txorkoak..., oinezkoei zuzendutako seinale bertikalak eta horizontalak (pasabideko margoa, S-17 eta P-20 seinaleak...), industrialdeetarako bideak eta Takolo biribilgunera jaisten den adarra, bere elementu funtzional guztiak barne. Hala ere, eraikitzaileak administrazio kontratatzailearen aurrean erantzukizuna izango du berme garaian zehar, baita epe



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

horren ondoren huts eta ezkutuko akatsengatik ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak ezarritakoari jarraituz.

6.2. Lotunea, eta bere elementu guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren titulartasunekoak izango dira eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepide sarean sartuko dira. GI-627 errepidearekin lotzen diren bide adarrek eta biribilguneko eraztunak osatzen dute lotune hori.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren titulartasunekoak izango dira, halaber, galtzadako gainontzeko elementuak (zintarriak eta erdiko irlatxoak...), argi-instalazioak, argindar kontsumoa, arekak, galtzada drainatzeko hustubideak eta kutxatilkak, eta ibilgailuen zirkulazioaren segurtasunarekin eta antolaketarekin lotutako seinaleak.

6.3. Gainera, obren harrera aktaren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku geratuko dira Udalaren eskura jarritako lurrak, foru titulartasuneko bideetako batean sartzen direnak.

Zazpigarrena.- Indarraldia.

7.1 Hitzarmen honen indarraldia sinatzen denean hasiko da eta obren harrera akta sinatzean bukatuko da; ezingo du lau urte baino gehiago iraun, ez bada aurrez luzatzea erabakitzen.

Zortzigarrena.- Hitzarmenaren jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoak

8.1. Bi erakundeek konpromisoa hartzen dute besteari jakinarazteko hitzarmena betetzeko jarduketa garrantzitsuenak, baita beste edozein gorabehera, atzerapen edo arazo ere, gehienez gertatzen denetik hilabeteko epean.

Bederatzigarrena.- Hitzarmena iraungitzea

9.1. Hitzarmena arrazoi hauengatik iraungiko da: helburu dituen jarduketak bete direlako edo bertan behera utzi delako.

9.2. Bertan behera uzteko arrazoiak hauek dira:

- a) helburua ez betetzea*
- b) aurreikusitako jarduketak ezin egin izana, aldeei egotzi ezin zaizkien arrazoiengatik*
- c) aldeek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoren bat ez betetzea*
- d) indarraldia igarotzea, epea luzatu gabe*
- e) aldeek ahobatezko erabakia*

9.3. Ez betetzeren bat gertatuz gero, aldeek hitzarmena betetzen ez duenari errekerimendu bat jakinarazi diezaioke, epe jakin batean bete ditzan bete gabetzat jotako betebeharrak edo konpromisoak.

Errekerimenduan adierazitako epea igarota oraindik ez bada hitzarmena bete, jakinarazpena bidali zuenak besteari adieraziko dio hitzarmena bertan behera uzteko arrazoi bat dagoela, eta hitzarmena bertan behera geratzen dela ulertuko da.

Hitzarmena bertan behera geratzen bada arrazoi horregatik, hitzarmena bete ez duenak besteari kalte-ordaina eman beharko dio, hitzarmen hau betetzeko egindako gastuengatik.

Hamargarrena.- Hitzarmenaren izaera eta araubide juridikoa.



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

10.1. Hitzarmen hau administratiboa da eta hitzarmenaren helburuko gaiari dagokion legeria eta zuzenbide administratiboko gainerako arauak ezarriko zaizkio. Bere exekuzioan gerta daitezkeen auziak ezagutzeko eskumena Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioak izango du."

II.- Ahalmena ematea Alkate Lehendakariari edo legez ordezkatzan duen Alkateordeari aipatutako hitzarmena sinatzeko eta bertan adostutakoa gauzatzeko egin beharreko izapideak burutzeko.

4.-ESPEDIENTE BATEN ERABAKI PROPOSAMENA, DEKLARATZEKO KOKALEKU BERRIA EGOKIA DELA TELEFONIA MUGIKORREKO ANTENA TOKI BAT EZARTZEKO UR DEPOSITUAN, SAN ANDRES AUZOAN. (2016HHHH0094)

2016ko irailaren 22an Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen, "VODAFONE ESPAÑA, SAU" k eskatuta, espediente bat hastea, deklaratzeko kokaleku berria egokia dela telefonía mugikorreko antena toki bat ezartzeko ur deposituan, San Andres auzoan.

Espedientea jendaurrean jarri da iragarki baten bidez, argitaratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2016ko urriaren 10ean.

Halaber, akordioa jakinarazi zaie "Orange ESPAGNE, SAU", "TELEFONICA MOVILES ESPAÑA, SAU" y "XFERA MOVILES, SA, konpainiei, esandako epean adierazi dezaten zer iritzi duten kokalekuaren egokitasunari buruz (geroago aldi batean beste batzuk ezarri behar badira).

Emandako epean alegazioak edo erreklamazioak aurkezteko, idatzi bat aurkeztu du Juan Jose Otaduy Echeverria jaunak, Iramendi baserrikoa bera, San Andres auzoan, zeinetan, laburtuta, adierazten duen aukeratutako lekua ez dela egokia, zeren leku hori baitago hainbat etxetatik gertu - eta gorde barik legezko distantziak-, horien artean dago alegazio egilearena, jakinda udalerrian leku ugari dagoela lurzoru hiritarrezina dena, urrun eraikuntzetatik edo giza kokalekuetatik, eta horietan jarri behar direla halako instalazioak. Idatziarekin batera, aurkeztu du txosten tekniko bat, goi mailako teknikari batek eginga, laneko arriskuen prebentziokoa eta ingeniari agronomoa eta aditua eremu elektromagnetikoak neurtzen, non adierazten den zer-nolako sintomatologia sortzen duten halako instalazioek pertsonetan, eta gomendatzen den ez egitea instalazioak etxebizitzetatik gertu.

Halaber, alegazio idatzi bat aurkeztu du San Andres baserri auzoko alkateak, zeinetan jasotzen diren auzoko batzordearen iritziak planteatu den instalazioaren gainean, eta horiek ere bat datoz diotenean telefonía mugikorreko antenek efektu kaltegarriak dituztela osasunerako eta aukeratutako lekua, instalazio hori egiteko, gertu dagoela auzoko bi baserritatik. Gainera, urte dute halako instalazio bat ez dela egokia landa lurretarako, ikusita zer eragin sortuko duen antena batek, eta eskatzen dute jarri dadila inor bizi ez den leku batean.

Gainera, egindako alegazioei erantzuteko, "VODAFONE ESPAÑA, SAU" k idatzi bat aurkeztu du, zeinetan adierazten duen telefonía mugikorreko antena tokia lekuz aldatzeak oraingo lekutik, Fagor Arrasateko industria pabiloian, orain planteatu den berrira, ez duela jatorria alegazio egilearen borondatean.



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

Partikularrek egindako alegazioak bidali ziren Energia, Turismo eta Agenda Digitalaren Ministeriora, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzara eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuordetzara, erakunde horien iritzia jakiteko alegazio horien edukia buruz eta ikusita zer kezka dagoen auzoko bizilagunen artean jarri behar den instalazioak efektu kaltegarriak sortu ote ditzakeen.

Energia, Turismo eta Agenda Digitalaren Ministerioak bai erantzun dio udal errekerimenduari, eta adierazi du, besteak beste, hauxe:

- Telekomunikazioen 9/2014 Lege Orokorrak, maiatzaren 9koa, 34.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, estatuari dagokio ezartzea zer muga dagoen emisio irratielektriko onargarrien mailetan zerbitzuetarako. Muga horiek ezarrita daude 1066/2001 Errege Dekretuan, irailaren 28koa, zeinak onartu zuen erregelamendua, ezartzen dituen jabetza publiko irratielektrikoaren babes baldintzak, emisio irratielektriko murriztapenak eta CTE/23/2002 Aginduaren babes neurriak, urtarrilaren 11koa, zeinak ezartzen dituen baldintzak azterketa eta ziurtagiri batzuk aurkezteko irratikomunikazioen zerbitzuen operadoreek.

- Horren ondorioz, eskumena emisio irratielektriko kontrolari buruz dagokio estatuari, zeinak erabiltzen duen Informazioaren eta Agentzia Digitalaren Sozietaterako estatu idazkariaren bidez, aplikatuz legez ezarritako prozedurak telefonoia mugikorreko antena lekuak estatu osoan zerbitzuan jartzea baimentzeko, baita ere, antena leku horiek bizitza operatiboan zer-nola egiaztatzen eta zer-nolako neurriak dituzten.

- Sozietate horrek ez du ematen baimenik telefonoia mugikorreko antena lekuak zerbitzuan jartzeko, baldin eta ez baditu betetzen mugak, ezarriak Errege Dekretu horretan emisio mailerako. Halaber, antena lekuaren bizitza erabilgarrian egiaztatuz gero emisio mailek ez dituztela betetzen muga horiek, berehala hartzen dira neurriak antena lekuaren zerbitzua galarazteko, ez bada zuzentzen funtzionamendu okerra.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren zuzendariak adierazi du, egindako alegazioetan jasotako iritzia ez direla ingurumen izaerakoak; hortaz, irizten dute ez dagokiela egitea txostenik.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak txosten bat bidali du udal errekerimendua erantzuteko, zeinetan, labur, ondorioztatzen da gaur egun ebidentzia dela mugatua, eta ezin dela ondorioztatzen telefonoia mugikorreko uhinek efektu kaltegarriak edukitzea osasunean, betiere 1066/2001 Errege Dekretuan ezarritako mailen azpitik badaude. Edozelan ere, irizten du telekomunikazioen azpiegiturak ezarri behar direla kontuan hartuta herritarren segurtasun printzipioak, ahaztu barik ingurumenaren babesa eta ingurumenaren integrazioa, eta beti zerbitzuaren kalitateari eutsita.

Txostena ikusita, udaleko zerbitzu teknikoek egina, eta kontuan izanik hau:

1.- Egindako alegazioei buruz lortutako txostenak aztertuta, konklusioa da udalaren eskumena gai honen inguruan dela hirigintza arlokoa, mugatuz leku batzuetara, zeintzuk ikuspegi batetik egokiak diren halako instalazioak ezartzeko, baita ere, mugatuz hirigintza lizentziak emateari zer horretarako, Eusko Legebiltzarreko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legean xedatutakoaren arabera. Instalazioak ezarritakoan, baimenak horiek zerbitzuan jartzeko eta geroagoa mugak kontrolatzeko emisio irratielektriko mailetan, erakunde eskudunei dagokie, gaiarengatik.



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

2.- Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren hirigintza araudian xedatutakoaren arabera, antenak, direnak telekomunikazioen transmisio, errepetizio eta/edo lotura zerbitzuak emateko (telefonoa finkoa eta mugikorra, telebista, irratia...) bakarrik jarri ahal izango dira hartarako diren eremu espezifikotan (hartarako izapidetutako espedienteetan sartzen diren eremuetan).

3.- San Andres auzoan ur depositua dagoen partzela, Arrasateko hiri antolamenduko plan orokorrean ezarritakoaren arabera, lurzoru hiritarrezinean dago, non, aplikazioko zonabanatze eta erabileren araudiaren arabera, litekeena den, besteak beste, interes publikoko azpiegiturak jartzea komunitatearen garapenari zerbitzua emateko.

Bestalde, ez dago ezein baldintzatzailerik gainjarrita partzelan, mugatzen duena hura jartzea. Hau da, ulertu daiteke proposatutako kokalekua, jarduera jartzeko, ez dela sentikorra ingurumen ikuspegitik.

Hortaz, leku hori egokia dela adieraztea telefonia mugikorreko antena leku bat ezartzeko, tramitatzen ari da hala sailkatutako lurzoruentzat Plan Orokorren hirigintza araudian xedatutakoaren arabera.

4.- Telefonia mugikorreko antena lekuari dagokionez, aipatu duena "VODAFONE ESPAÑA, SAU" k idatzian, Fagor Arrasate eraikinean dago, udalerriko hiri antolamenduko plan orokorrean hiritargarri sailkatutako lurzorian. Antena leku hori jarri da eduki barik nahitaezko udal baimena, eta lotua dago prozedura bati, hirigintza legezatasuna berriro ezartzeko, aldatzen ari dena une honetan.

5.- "VODAFONE ESPAÑA, SAU" k idatzian aurkeztutako argudioetatik ezin da ondorioztatu kokaleku berria, telefonia mugikorreko antena lekua ezartzeko ur deposituan, San Andres auzoan, ez dela egokia halako instalazioak jartzeko. Halaber, gainerako operadoreek ez dute ezer adierazi horren aurka. Hortaz, hor diraute egitateak eta fundamentuek, prozedura honen tramitazioa ekarri zutenak.

6.- Aurrekoan oinarrituta, egokia da onartzea kokaleku berri horren egokitasun adierazpena telefonia mugikorreko ante lekua jartzeko.

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasunaren informazio batzordeak proposatzen dio udaleko osoko bilkurari akordio hau hartzea:

I.- Onartzea kokaleku berriaren egokitasun adierazpena telefonia mugikorreko antena tokia ezartzeko ur deposituan, San Andres auzoan.

II.- Jakinaraztea akordioa telefonia mugikorreko operadore nagusiei ("ORANGE ESPAGNE, SAU", "VODAFONE ESPAÑA, SAU", "TELEFONICA MOVILES ESPAÑA, SAU" eta "XFERA MOVILES, SA"), jakin dezaten akordioaren berri, geroago halakorik jarri behar izanez gero.

E.BARBERENA (EH-BILDU):



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

Aupa arratsaldeon denoi. Gurekin egon dira berriki San Andres baserri auzoko hainbat bizilagun bereziki gertu afektatzen diena antena honek edo antena honen asmoak apur bat euren kezka azaltzeko ez? Egia da teknikoen txostenak badaudela bai Eusko Jaurlaritzarena eta Ministeriorenak baina egia da ere uhinen eta antenen teknologia oso berria dela eta oraindik ez dakigula bere ondorioak epe luzera zeintzuk izango diren eta horrek ezinegona, beldurra eta nolabaiteko antsietate bat generatzen duela biztanlegoarengan ez?

Gure proposamena da gaurko pleno honetan gaia ea mahai gainean uzteko aukerarik baden ba beste kokaleku bat aztertzeko etxebizitzetatik horren gertu ez dagoena. Egia da, ez direla biztanle asko baina euren etxea da eta nolabait bigarren buelta bat ematea gai honi uste dugulako baduela bere inportantzia.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Eskerrik asko. Juan luis.

J.L MERINO (IRABAZI):

Si yo en el mismo sentido de Eneko vemos que son dos caseríos los afectados ahí y no son muchas personas, pero bueno con que sea una ya es suficiente y creo que ese debería de revisar o plantear otra ubicación distinta a ella ¿no? Yo tengo el escrito que han presentado las alegaciones que ha presentado Otadui y creo que se merece dejarlo encima de la mesa y estudiarlo detenidamente por parte de todos.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik badago? Ez ba bueno jasotzen dugu zuen eskaera eta guk ez daukagu inolako arazorik batzordean, uste genuen batzordean tratatutako gai bat bazala ez dakit batzordean gai honi buruz alegazioak pentsatzen dut hitz eginda egongo zirela baina hala ere guk ez daukagu arazorik gaia berri batzordetik pasatzeko eta hortaz bozkatu egin behar dugu bertan behera lagatzea puntua gai ordenatik ez? Hori da, orduan bozkatua egingo dugu puntua gai ordenatik ateratzea:

Bertaratuak	20	
Aldeko botoak:	19	EAJ-PNV (7), EH-BILDU (7), PSE-EE (2) BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:	1	EAJ-PNV(1)
Abstentzioak:		

Beraz, mahai gainean uzten da.

5.- HASIERA BATEAN ONARTZEA “URAREN ZIKLO INTEGRALA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA”. (2016ZZER0104)



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

Udal Plenoak, aho batez, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udaleko zerbitzu teknikoek aurkezten dute uraren ziklo integralaren ordenantza. Gaur egun Arrasateko Udalak ez dauka ordenantza bat horri buruz; hala ere, udaleko zerbitzu teknikoek zerbitzu osoa egiten dute, azpikontrataturik eduki barik; horregatik, beharrezkotzat jo da erregulatuta edukitzea, zerbitzu hobea emateko erabiltzaileei. Ordenantza idazteko, gure eskumena dena, udaleko zerbitzu teknikoek oinarritu dira, batez ere, Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren eta inguruko udalerrri batzuen ordenantzan.

Ordenantza honen xedea da harremanak erregulatzea Arrasateko Udalaren artean eta Ur eta Saneamendu Zerbitzuko abonatuaren artean, Arrasaten, eta hor zehazten dira alde bakoitzaren oinarritzko eskubideak eta betebeharrak.

a) Dagokigun testuak egitura hau du:

I. KAPITULUA: ARAU OROKORRAK

1. Artikulutik 6. artikulura

II. KAPITULUA: ARRASATEKO UDALAREN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK. ETA ABONATUENAK.

7. Artikulutik 10. artikulura

III. KAPITULUA: INSTALAZIOAK

11. Artikulutik 16. artikulura

IV. KAPITULUA: BARNE INSTALAZIOAK

17. Artikulutik 20. artikulura

V. KAPITULUA: HARGUNEAK

21. Artikulutik 30. artikulura

VI. KAPITULUA: SANEAMENDUA

31. Artikulutik 33. artikulura

VII. KAPITULUA: KONTSUMOEN KONTROLA

34. Artikulutik 49. artikulura

VIII. KAPITULUA: UR HORNIDURAREN BALDINTZAK

50. Artikulutik 52. artikulura

IX. KAPITULUA: HORNIDURA EMAN ETA KONTRATATZEA



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

53. Artikulutik 66. artikulura

X. KAPITULUA: ERREGULARTASUNA HORNIDURAN

67. Artikulutik 70. artikulura

XI. KAPITULUA: IRUZURRAK UR HORNIDURAN

71. Artikulutik 72. artikulura

XII. KAPITULUA: ERREKLAMAZIOAK ETA JURISDIKZIOA

73. Artikulua.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

AZKEN XEDAPENA

- b) Ordenantzaren zirriborroa Udal Web orrian argitaratu dela 2017ko urtarrilak 15 eta 31 bitartean, inolako alegazio edo aportaziorik jaso ez delarik.
- c) Ordenantzaren berritasunen artean, Udalaren oraingo funtzionamenduaren aldean, hauek daude:
 - 1.- 4. Artikulua: *“Abonatua: Pertsona abonatua izango da hornitutako finikaren titularra. Jarduera lokalak izanez gero, maiztterra ere abonatutzat jo daiteke”.*
 - 2.- 71 eta 72. Artikulua: Iruzurraren definizioa eta iruzurraren likidazioa. Nahiz eta ordenantzak ez jaso zigor prozedura bat, zorrotz esanda, bai definitzen du zer den iruzurra, eta detektatutakoan zelan jardun behar den haren aurrean. Ordenantzak planteatzen du 4 iruzur kasu, dagokion likidazio erarekin.

Dokumentua aztertutik, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako batzordeak, bertan diren zinegotzi guztiek alde botaturik, hau da Oscar García Horrillo, Juan Ramón Mendieta Garay, Eva Abuin Bideburu, Juan Luis Merino Sanabráa eta “Piter” Encinas José, hauxe proposatzen du:

1.- Hasiera batean onartzea “Uraren ziklo integralaren ordenantza”.

2.- Akordioa jendaurrean erakustea eta audientzia ematea ordenantza hasiera batean onartzeko, interesdunek erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko, gutxienez hogeita hamar egunean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera. Eta aurkeztu ezean erreklamaziorik edo iradokizunik, ulertuko da akordioa behin betiko onartu dela, ordura arte behin-behinekoa, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen, 49. Artikuluan xedatutakoaren arabera.



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

6.-ARRASATEKO UDALAK GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIORA ATXIKITZEKO ERABAKIA.(2017SSEC0005)

Arrasateko udalak berebiziko garrantzia ematen dio parte hartzeari, gobernua herriaren isla izan behar delako.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak *Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazio bat sortzeari buruzko Foru Dekretua* onartu du, bere bigarren artikuluan zehazten duen moduan ondorengo helburuekin:

a) Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernuaren eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da, herritarren eta erakundeen arteko erlazioak indartu daitezzen.

b) Herritarren partaidetzaren arloko erakundeen esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezartzea, alor horretako elkarrekiko ikaskuntzako erakunde-komunitatea eta hobekuntza instituzionala sustatuta.

c) Laguntza eta lankidetzak teknikorako bideak hedatzea Espazioan dauden erakundeek betebehar arauemaileak egikaritzeko, araudiak eta ordenantzak onartzeko eta herritarren partaidetzarako metodologiak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.

d) Herritarren Partaidetzako alorrean Foru Aldundiaren diru laguntzen politika zehazten laguntzeko tresna izatea.

e) Prestakuntza programak eta jardunaldi espezializatuak sustatzea, baldin eta zeharkako alor honetan eskuduntzak dituzten kargu publiko adierazgarrien eskumen instituzionalak indartzen badituzte eta herritarren partaidetzaren alorreko foru eta udal zuzendari eta teknikarien gaitasun profesionalak garatzen badituzte.

Udal honen nahia Espazio horren parte izatea izanik Osoko Batzarrari proposatzen zaio atxikimen adierazpen hau onartzea.

Halaber, Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarrian zehaztu moduan, atxikimen honek bere gain konpromiso hartzea eskatzen dio.

Hori horrela osoko bilkurari ondokoa adostu dezala proposatzen zaio:



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

1. Arrasateko Udala Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari atxikitzea.
2. Espazio horren espazio orokor edo plenarioko kide gisa, Arrasateko Udalaren ordezkari gisa, honakoak izendatzea: Maria Ubarretxena Cid eta Eneko Barberena Mondragon.
3. Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak beregain hartzea.
 - a) Arlo politikoan nahiz teknikoan modu aktiboan parte hartzea Espazioko organo edo egituretan esleitutako pertsonen bitartez.
 - b) Espazioaren funtzionamendua sustatzea, proposamenen eta ekimenen bitartez.
 - c) Foru Aldundiak, tokiko erakundeen mesedetan, sustatuko dituen herritarren partaidetza arloko diru-laguntzen lerroei buruzko iritziak definitzeko eta zehazteko prozesuetan parte hartzea eta eztabaidatzea, betiere Espazioko organo edo egitura eskudunen bitartez.
 - d) Proposatzea partaidetzarako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta prestakuntzako beste hainbat jarduera, Espazioko organo edo egitura eskudunek eztabaidatu eta onartu ditzaten.
 - e) Gida metodologikoak eta herritarren partaidetzarako onuragarriak izango diren beste edozein baliabide edo tresna proposatzea, bereziki partaidetzazko aurrekontuen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
 - f) Espazioan ezartzea partaidetza alorreko praktika onak, bertan parte hartuko duten erakundeen ezagutza handitzeko eta herritarren partaidetzako foru, udal eta tokiko erakundeen politikak hobetzeko.
 - g) Espazioaren aurrekontuak ezagutzea eta, behar bada, gai horren inguruan eztabaidatzea organo edo egitura eskudunen bitartez.
 - h) Partaidetza alorrean Foru Aldundiak burutuko dituen laguntza tekniko eta lankidetzako prozesuetan udalei eta tokiko erakundeei laguntza ematea, arazoak edo gai irekiak behar bezala identifikatzeko, erregelamendu nahiz ordenantza-tipoak eta



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

proposatutako gida metodologikoak sustatzeko, eta herritarren partaidetzako tokiko politikak hobetzera bideratutako Espazioaren beste edozein ekimen bultzatzeko.

i) Espazioa dinamizatzea egungo egituren bidez, eta foro teknikoak koordinatzea, hala behar bada.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzari erabaki honen berri ematea.

BOZKETA, PROPOSAMENA EZTABAIDATU ETA BOZKATZEKO

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Klaro diktaminatu gabe zegoenez komentatu gauen bozkatu egin behar genuela puntua sartzea baina bueno ahaztu egin zaigu orduan bozkatuko dugu lehenengo puntua sartzea eta ondoren beste bozka bat egingo dugu ea puntuarekin ados gauden edo ez. Lehenengo bozka izango da puntua sartzearen bozka.

Bertaratuak	20	
Aldeko botoak:	19	EAJ-PNV (8), EH-BILDU (7), PSE-EE (2) BALEIKE (2)
Kontrako botoak:		
Abstentzioak:	1	IRABAZI (1)

Proposamena eztabaidatu eta bozkatzea onartzen da

Puntuaren onarpena bozkatzera pasatuko gara.

Bertaratuak	20	
Aldeko botoak:	19	EAJ-PNV (8), EH-BILDU (7), PSE-EE (2) BALEIKE (2)
Kontrako botoak:		
Abstentzioak:	1	IRABAZI (1)

Beraz, onartzen da.

7.-TRANSFORMADOREA KENTZEAREN INGURUAN, ARRASATE HERRI ESKOLAKO GURASO ELKARTEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA. (2017SMOZ0007)



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Hitza eskatu dutenez orain izango da zuen txanda orain emango dizuegu mikrofonoa eta zuek daukazue hitza.

B. BALERDI (Publikotik):

Kaixo Beñardo Balerdi naiz Arrasate Herri Eskolako zuzendaria eta guraso elkartearen ordezkari hitz egingo dut. Esan beharra daukagu mozioa jarri genuenetik udalarekin harremanetan egon gara eta beraien aldetik gaiari heltzeko prestutasuna ikusi dela eta jadanik udalak eskatu diola Iberdrolari transformazio zentroa eskolatik ateratzeko estudioa egitea. Honegatik gure asmoa mozioa ez irakurtzea zen baina alderdi politiko guztien babesari nahi digunez ezinbesteko baldintza da mozioa irakurtzea orduan horretan arituko da orain Amaia. Eskerrik asko.

**TRANSFORMADOREA KENTZEAREN INGURUAN, ARRASATE HERRI
ESKOLAKO GURASO ELKARTEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA. (2017SMOZ0007)**

Udal Plenoak, aho batez, Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteak aurkeztutako ondoko mozioa onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Mozio honen bitartez Arrasateko Herri Eskolako guraso garenok gure instalazio eta eraikinen inguruko ardura eta kezka adierazi nahi dizuegu. Arrasateko Musakola Auzoan dagoen eraikina handitzeko proiektua orain dela 13 urte adostu zen; gaur egun oraindik ez da ezer egin.

Aurrekari bezala esan beharra dago 2004. Urtean Arantxa Laka Lurralde Ordezkaria zen garaian, Musakolako obrak eta aurreikuspenak zehaztu ziren lehenengo aldiz. Hasiera batean, eta herri eskolan matrikulatu nahi zuten haurren demandari aurre egiteko Arrasateko Musakola auzoan eraikin bat zabaltzeko onartu ziren, Haurreskola bezala.

Ondoren La Merced ikastetxea itxi egin zen eta hango ikasle kopuru handi bat Arrasate Herri Eskolak jaso zuen. Arrasate Herri Eskolako egoera eta beharrak ikusita Musakolan lerro bat zabaltzea eta irisgarritasun plana betetzea proposatu zen.

2004tik aurrera hainbat Lurralde Ordezkarri egon dira eta denak bat etorri dira eraikin eta hezkuntza inguru horrek irisgarritasun falta zuela eta puntu asko hobetu behar zirela irisgarritasun plana bete eta haurrei egoera eta inguru duina eta segurua bermatzeko. Musakolako eraikinak berezitasun bat dauka, berez bi eraikin dira, bat bakarrik dago guztiz erabilgarri eta hasieratik onartu zen bigarren eraikina (alboan dagoena) bota eta berri bat eraikitzea.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak onartu du obra hau eta bere aurrekontuetan kontenplatu izan zen orain 13 urte. Obra burutu ahal izateko baldintza bakarra bete behar da; Arrasateko Udalak eskolako patio erdian daukan transformadorea botatzea eta lekuz aldatzea. Ba gaur egun hau ez da bete.



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

Askotan eta era ezberdinetan eskatu izan diogu Udalari transformadorea kentzea, egoera behingoz desblokeatzeko eta gure hurrek eremu duin bat, segurtasun neurridun patio bat, hau da, eskola egokitu baten hezitzea.

Planteamendua izan zen:

Musakolan eraikina egitea Erguin arintzeko helburuarekin. Horrela Erguin arinduko litzateke ikaslez, autobusez eta jangelaz eta Musakolako ikasleek beraien auzoan kokatuko lirateke.

Guzti honekin Arartekoarengana jo izan dugu orain aste batzuk eta zuengana gatoz berriro erantzun eske, uste baitugu gure haurren eta berain gurasoen eskubidea dela irisgarritasun plana betetzea behingoz; transformadorea patiotik kendu eta eraikin berri bat eraikitzea orain 13 urte erabaki zen bezala.

Bihotzez eskertuko genuke zuen aldetik egin ahal dezakezuna egitea, gure ikastetxeko ikasleak horren merezidun baitira. Milas esker aldeztetik Arrasate herri eskolako guraso elkarteak.

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Arratsaldeon guztioi. Lehenik eta behin mila esker Balerdi jauna eta baita guraso elkarteko ordezkariok gaur hona hurbildu zaretenoi zuen mozioa hau adieraztera.

Lehenik eta behin mozioak dioen bezala Arartekora jo zenuten ondo egina ze egia da Arartekoa dela administrazio desberdinetan gatazkak edo arazoak daudenean edo ikuspuntu desberdinak agente bat non agente honek eskatzen dun administrazio ezberdinei eginbeharrak zer egin dan, zer ez da egin eta horrela heldu zaigu hasiera batean guri gai honen berri, eskertuko genizueke hurrengoan gugana lehenago jotzea egia da esan duzun bezala duela 10 bat egun zuekin elkartu ginan alkatea zuekin elkartu zan baita ere mozioak dioen bezala gai honek udara honetan 13 urte luze darama urte larregi egia da baita eta horrela dago udaletxean dauden paper ezberdinetan aspaldidanik 2007, 2009tik aurrera gai honen inguruan behin eta berriz lan ezberdinak egin direla hitz egin dela Gipuzkoako ordezkariarekin, Jaurlaritzarekin eta egia da guk badakizute 2015eko maiatza ostean sartu ginen udaletxe honetara eta guk gai honi heldu genion ze bagenekien Arrasaterako, Herri Eskolarako eta udaletxerako gai hau prioritate bat dela, lehentasun bat dela eta horrela helarazi genizuen eta gaur ia esan dezakegu 13 urteetan arrazoiak arrazoi transformadore honek jarraitzen de egon behar ez duen leku batetan hori horrela da.

Guk hitz egin dugu bai Gipuzkoako hezkuntza ordezkariarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Iberdrolarekin ia prozesu administratiboa martxan dago transformadore hori kentzeko eta transformadore hori kenduko da leku berri batera ia kokapenaren kokapen berria ere badauka plano batzuk edo zerbait ikusi dezutela eta bueno berriz ere berretsi nahi dugu lanean ari garela baita ere esan zuek esaten dezute hemen obra burutu ahal izateko eskola berri bat egiteko baldintza bakarra omen dela transformadore hori kentzea guri Eusko Jaurlaritzatik esaten digute ez dela horrela beste lehentasun batzuk egon daitezkeela dena dela nahiz eta gure eskumen zuzena ez izan hemen konprometitzen gara berretsi nahi dugu bidelagun izango gaituzuela baita ere ez bakarrik



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

transformadoreak kentzeko ze hori konpromiso irmoa, sendoa eta transformadore hori kenduko da baina baita ere eraikin berri horretan beharrezkoa dena eta bueno bidelagun izango gaituzuela.

Dena dela, bai eskertuko genizueke uste dut helarazi genizuela aurreko astean udaletxetik egin diren aurrera pauso guztiak ikaslego, irakaslego, familia artean eta informazio guzti hori gardentasunaren baitan zabaltzea ikus dezaten ba bueno gai honek aurrera pauso nabarmenak eta garrantzitsuak ematen ari ginen. Eskerrik asko. Mila esker.

E. FERNANDEZ (EH-BILDU):

Arratsaldeon denoi. Lehenengo eskerrak ematea Herri Eskolako zuzendaritzari eta guraso elkarteei bertaratzeagatik zuen egoeraren berri ematen eta gure geunke esan zoritxarrez edo zorionez gaizki ulertu bat medio Arartekora eskutitz batek desblokeatu dauela gai hau eta azken finean poztu egiten gara desblokeatu egin delako eta transformadorea soterratu egingo delako eta bueno apur bat inkoherentea pentsatzen jat esatea 13 urte doiala gaia hemen udaletxean eta era berean esatea eskumena Eusko Jaurlaritzarena dela. Ez dakit nik uste dut Eusko Jaurlaritzak eskumen handienak berak daukala baina bueno gure geunke eskatzea bai Eusko Jaurlaritzari eta bai gobernuari azkeneko asteetan erakutsi dauen eman dotzan lehentasuna berakin jarraitzea eta eduki dauen determinazio hori ba jarraitzea edukitzen proiektua bukatu arte.

Lehengoko pausoa transformadorea soterratzea delako baina ondion pauso gehiago eman behar direlako Musakolako haurrek merezi daben eraikina edukitzeko.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik?

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Haber nik uste dut danok gazela helburu berdinen alde baina bai gauza batzuk esan duzuna ez nago ados eta ez dut irakurri nahi izan gazenetik eta ez da izan Arartekoari heldu jatzuelako eskutitz hori egin direla horrek lortuarazi duela transformadore hori kentzea. Ez da horrela.

Zuei ere helarazi zaizue ez naiz hasiko irakurtzen 2015eko irailetik aurrera egin ditugun pauso guztiak Iberdrolarekin, Gipuzkoako delegaritzarekin eta Jaurlaritzarekin baina helaraziko dizuet ikus dezazuten gaiak urte bete luze daroiala hau lortzeko besterik ez.

E.FERNANDEZ (EH-BILDU):

Ni be ez nago ados esan duzunean gaia Herri Eskolakoak ez dauela ekarri orain arte hona joan direla Arartekora zuzenean hemendik pasau barik batzordean askotan landu da egia da goiazela legealdi osoan batzordean gaia ateratzen esan neike nik atera dotela mahai gainera behin baina gehixau eta periodikoki eta egixa esan gaixa egon da apur bat el día de la marmota moduan geldi orain dela aste batzuetara arte eta bestela irakurri aktak.



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik? Orduan bozketara pasatuko gara.

Bertaratuak	20	
Aldeko botoak:	20	EAJ-PNV (8), EH-BILDU (7), PSE-EE (2) BALEIKE (2) IRABAZI (1)
Kontrako botoak:		
Abstentzioak:		

8.- FRANKISMOAREN BIKTIMEI JUSTIZIA EGITEAREN INGURUKO MOZIOA. (2017SMOZ0017)

Udal Plenoak, aho batez, Frankismoaren krimenen aurkako kereilaren euskal plataformak aurkeztutako ondoko mozioa onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

OINARRIAK

1936eko Uztailaren 18an kolpe militar batek bigarren errepublikaren bidezko autoritateak zapuztu zituen.

Altxamenduak, Alemaniako nazien eta Italiako faxisten laguntzarekin, kolpisten ideologia nazional-katolikoaren aurka zeuden pertsona, talde sozial, politiko eta kulturalen triskantza osoa zuen helburu.

Matxinadak diktadura gogor bat ezarri zuen, berrogei urte baino gehiagotan ehunka-milaka pertsonen oinarrizko giza-eskubideen urraketa ekarriaz: desagertuak; fusilatuak; haur lapurtuak; esklabutza-lana; tratu txarrak eta gehiegikeriak kontzentrazio-eremuetan, kartzeletan, polizia-etxeetan, kuarteletan, prebentorioetan; presoak; torturatuak; atzerriratuak; errepresaliatuak; eta abar luze bat.

Orain arte biktima guzti hauetatik ez da bat ere izan justiziagatik erreparatua, ezta hainbeste min eta laztura eragin zuten erantzule bakar bat ere ez da tribunal edo epaitegi baten aurrean egon.

Egoera lotsagarri honek ezin du horrela jarraitu. Ez dagokie biktimei eta bere senitartekoei bakarrik. Gizarte guztiari dagokio hiritar guztien eskubideak eta interesak babestea, eta batez ere instituzio hurbilenei, udaletxei hain zuzen, egokien baitaude biktimen egoera ezagutzeko.

Erakunde terrorista baten eraginez atenuatu bat suertatuko balitz udalbatzako kide edo beste bizilagun baten aurka, inork ez luke zalantzarik izango gobernu municipalaren zilegitasuna ekimen judizial bat bultzatzeko gertaera ikertu eta erantzukizun penak eta zibilak eskatuaz. Nola ez da, ba, zielgi izango gure herrian hainbeste biktima erain zuen estatu-terrorismoaren ekimen sistematikoaren aurrean jarrera berdina izatea?



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

Oztopo juridiko gaindiezinak daudela konbentzitu nahian ibili dira orain arte. Alderantziz denean: ez da bakarrik inongo oztoporik ez dagoela, baizik eta legearen aurkako izugarritzko jarrera nabaria dela. Gizakiari edo komunitate bateri dagokion Justiziaren oinarritzko eskubidearen ukapenak ez du adierazten biktimekiko, eta edozein gizarte demokratiko batentzat, jarrera iraingarri bat bakarrik, baizik eta iruzur handi eta nabari bat ere bai. Batez ere horrelako krimen izugarri eta garrantzietan buruz ari garenean.

Giza eskubideekiko nazioarteko zuzenbidearen agindua saihestezina da, edozein egoeratan ere, gizateriaren aurkako krimenak egiten dituztenentzat, ezin delarik ezarri babes gisa inongo legerik, edo ekimenik, edo erabaki politiko nahiz juridikorik. Gainera, 1977ko urriaren 15ean 46/1977 legea ezarri zenean, amnistiarena, estatu espainiarrak sinatuta eta berretsia zuen, jadanik, eskubide zibil eta politikoen itun internazional, baita estatuko buletin ofizialean argitaratua ere.

Nazioarteko Hitzarmen honek, zeinek Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak jasotzen dituen eskubideak derrigorrezko bilakatu zituen, bere 15.1 atalean dio inor ezin dela kondenatua izan ekintza edo huts-egiteengatik, baldin eta egin zirenean eskubide nazional edo internazionalaren aurkako delituak ez baziren; eta 15.2 atalean dio ezerk ez duela saihestuko epaiketa eta zigorra egin diren ekintza edo huts-egiteengatik, baldin eta egin zirenean komunitate internazionalen onartutako eskubideen aldeko printzipio orokorren aurkako delituak baziren.

Frankisrnoak eragin zituen krimenak, egin zirenean, jadanik Errepublikaren legeetan zeuden ezarriak alde batetik, bestetik diktadurak berak ezarritako legeetan sartu zituen delitu arruntak bezala, eta azkenik eskubide internazionalen gizateriaren aurkako delitu bezala zeuden jasoak. Hau da: Nüremberg-eko printzipioek esaten duten lez "erailketa, sarraski, esklabutza, deportazioa edo beste edozein motatako ekintza jasanezina populazio zibilararen aurka, edo politiko, arraza edo erlijiozko arrazoiengatik jazarpenen aurka ...". Delitu hauegatik - frankisrnoaren diktadura hasi baino lehen eginikoak - eta aipatutako printzipioei jarraituaz, nazi kriminal asko izan ziren jazarriak, epaituak eta kondenatuak. Are gehiago, egun oraindik jazarriak eta epaituak ari dira izaten, preskribaezinak diren krimenak egin baitituzte.

Espainiar Konstituzioak, bere 10.2 atalean dio "Konstituzioak aitortzen dituen oinarritzko eskubideei (justiziara sarbidea, kasu honetan) eta askatasunei buruzko arauak interpretatzeko, kontuan hartuko da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, bai eta gai berberen inguruan Espainiak berretsi dituen nazioarteko tratatuak eta itunak ere." Eta 96 atalean: "Baliozkotasunez eginiko nazioarteko itunak Espainian modu ofizialean argitaratu eta gero, barne-antolamenduaren osagai izango dira".

Zentzu berean, Kode Zibilaren 1.5 atalak dio itun internazionalen ezarritako arau juridikoak aplikazio zuzena behar dutela izan, behin Estatuko Buletin Ofizialean argitaratuta egon.

Azkenik, Itunen Eskubideei buruzko Vienako Konbentzioak, zeinari Estatu espainolak bere atxikimendua eman zion 1972.eko maiatzaren 2an, bere 26.atalean dio "Indarrean dauden itun



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

guztiak betebeharezkoak dira alde guztientzat, eta fede onez konplituak"; eta 27.a:talean: "Alde batek ezingo du bere barne-eskubideen betebeharrak aipatu itun baten arauak ez betetzeko"

Halaber, epaitzeko betebeharra dator, beste tresna internazionalatik aparte, 1973.eko abenduaren 3an, Gizateriaren Krimenen edo Gerra Krimenen Erantzuleen Identifikazio, Atxiloketa, Estradizio eta Zigorrerako Lankidetzaren Internazionalen Printzipioei buruz Nazio Batuen Batzar Orokorrean eman zen 3074 Erabakiaren aldetik, ezarri ziren printzipioen artean ondoko hauek baitaude:

1.- Gerra krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak, edozein tokitan nahiz datetan eginak izan, ikertuak izan beharko dira, eta krimen horien errudun-frogarik legokeen pertsonen buruz ikerketa egin beharko da eta bilatuak, atxilotuak, epaituak eta, errudun deklaratuak badira, zigortuak izango dira . (.....)

5.- Gerra krimenen edo gizateriaren aurkako krimenen errudun-froga duten pertsonak epaituak izango dira, eta errudun deklaratuak badira, ezarritako zigorra krimenak egin zituzten herrietan bete beharko dute orokorrean."

Hitz batez, espainiar Amnistiaren legeak ez ditu bakarrik eskubide internazionalaren printzipio orokorrak urratzen orokorki, baizik eta lege hori ezarri baino lehenagotik Estatu espainiarrak sinatutako eta bete beharreko nazioarteko itunak ere urratzen dituela. Horregatik ezin ditu saihestu frankismoak eragin zituen krimenen .aurkako ikerketak eta ekintza judizialak

Bestalde, ez dira zigor-ikerketak izan behar bakarrik pertsonen desagertze-bortxatuen delituetan, tartean ume lapurtuen eta jabetuen delituetan, burutze egoera iraunkor baten daudenak eta, beraz, beraien delituaren preskribatze-data biktima agertu arte ezin daitekeena . kontatzen hasi. Frankismoak eragindako edozein motatako bidezkoa ez den ekintza bakoitzari dagokion zigor-ikerketa egin behar zaio, gizateriaren aurkako krimenak direlako ikertzen ari garena.

Mota honetako krimenen preskribaezintasuna ohiturazko eskubide internazionalaren aginte arau bat da, 1968ko azaroaren 26an izan zen Gizateriaren Krimenei eta Gerra Krimenei buruzko preskribaezintasunaren Konbentzioan ezarri zena, zeinek bere 1. atalean esaten duen delitu hauek "... egin ziren edozein data izanda ere, preskriba-ezinak dira"

Goian aipatutako lege-xedapenei jarraituz, justizia espainiarra izan da, hain zuzen, munduko toki ezberdinetan egindako gizateriaren aurkako urraketak eta krimenak ikertu dituenak, nahiz eta kasu guztietan frankismo garaian baino askoz ere kopuru gutxiagoak izan eta denboran gutxiago luzatuak. Aldiz, kanporako beraiek erabilitako doktrina argi honi traizioa eginaz hain zuzen, etxerako, justizia espainiarrak frankismoaren krimenak ikertzeari uko egin dio, gaurdaino, argudio eutsiezinekin.

Horren ondorioa izan da biktimak bere eskubideak defendatzeko hartu duten bide internazionala. Bai Argentinan eraikitako frankismoaren aurkako Kereilak, eta baita Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak dituen hainbat erakundeen inpunitearen aurkako erabakiek oinarri



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

sendoa ematen dio Egia, Justizia eta Erreparazioaren aldarriari. Baina ez da nahikoa: beharrezkoa zaigu frankismoaren inpunitatearekin hemen eta orain bukatzea. Eta horretarako ezinbestekoa dela deritzogu instituzio publikoek Justiziaren ekimenak bereak egin eta bultzatzea.

Zentzu horretan, Euskal Herriko hainbat udalbatzek izan duten jarrera baikorra aipatzekoa eta ezkertzekoa da, udaletako talde politiko gehiengoaren babesarekin Argentinan irekitako frankismoaren aurkako Kereilaren aldeko Mozioak onartu baitziren, Arrasateko Udalean 2012.eko Uztailaren 17an gertatu zen moduan.

Horregatik pentsatzen dugu oso erabakigarria izan daitekeela udalek bete dezaketen zeregina prozedura judicial argentinarrean parte zuzena hartuaz; eta baita herriko edo eskualdeko epaitegietan kereila kriminalak jarriaz bere herrietan gertatutakoa ikertzeko herriko biktimei babes osoa emanaz.

Gure herrian orain arte ikertutakoarekin frankismoak eragindako kolpe militarren eta errepresioaren biktimei zerrenda egingo da, ondorengo erabakia betetzeko.

XEDAPENA

Aipatutakoagatik, Arrasateko Udalak honako erabakia hartzen du:

1.- Argentinan hiriburu den Buenos Aireseko Epaitegi Nazionalako Kriminal eta Zentzategi Federalaren 1 artetako kereila kriminal bat jartzea Epaitegi horrek irekita duen 4591/10 Auziaren barnean, gure Udalerrian diktadura frankistak eragindako gizateriaren aurkako krimen guztiak iker ditzan, zein baldintzatan egin ziren zehaztuaz, nortzuk izan ziren erantzule zuzenak eta zeharkakoak jakinaz, eta, kasuan, beraien egozte, auzipetze, epaiketa eta zigorra jartzeko erabakia hartuaz.

Kereilari atal bat erantsiko zaio datu batzuk zehaztuaz: biktimei zerrenda nominala, adina, ogibidea, krimenaren data, sufritutako delituak eta jasotako bere ondorioak.

2.- Gure herriko edo eskualdeko Epaitegian kereila kriminal bat jarri Udalerrian diktadura frankistak eragindako gizateriaren aurkako krimen guztiak iker ditzan, zein baldintzatan egin ziren zehaztuaz, nortzuk izan ziren erantzule zuzenak eta zeharkakoak jakinaz, eta, kasuan, beraien egozte, auzipetze, epaiketa eta zigorra jartzeko erabakia hartuaz.

kereilari atal bat erantsiko zaio datu batzuk zehaztuaz: biktimei zerrenda nominala, adina, ogibidea, krimenaren data, sufritutako delituak eta jasotako bere ondorioak.

3.- Gure Udalerrian frankismoaren aurka kereilak edo salaketak jartzea nahi dituzten bizilagun biktimei edo biktimei familiarteko guztiak laguntza materiala eta juridikoa eskaini, Horretarako, Udalak bulego berezi bat sortuko du diktaduraren biktimei arreta eta laguntza eskaintzeko.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

Mozioa hau udalbatza osatzen dugun talde politikoen guztien artean adostu dugunez eta aurkeztu dugunez adostu genuen ere testu txiki bat irakurtzea denon partez egon beharrean talde bakoitza bere interbentzio indibiduala edo egin barik ezta? Orduan testua irakurtzera pasatuko naiz.

Arrasateko udalak udalbatzako talde guztiek aho batez onarturik bat egiten du gerra zibileko eta frankismoko biktimek eta talde memorialistek hauspoturiko argentinar kereilarekin gerra zibiletik 80 urte eta frankismoko amaieratik 40 urte igaro diren honetan inpunitatea eta ahanztura albo batean utzi behar dira justiziaren eta memoriaren alde. Horretarako udalak behar diren pertsonak eta baliabideak jarriko ditu Arrasate eta arrasatearrei jasotako injustizia denak batu eta justiziaren aurrera eramateko. Eta orain mozioa bozkatzera pasatuko gara.

9.- EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUKO MOZIOA.

Martxoak 8: ordezkariak orekatu baterako 8 printzipio

“Emakume gutxi daude ordezkariak udal mailan erabakiak hartzeko guneetan, eta tokiko politikan sartzeko eta berdintasunezko parte-hartzerako arazo espezifikoei aurre egin behar izaten diete”. Hori jaso zuen Inger Lingek Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko agintarien kongresuaren 31.saioan aurkeztutako txostenean. Kongresua urriaren 20an egin zen, eta emakumeen tokiko eta eskualdeko parte-hartze eta ordezkariak politikoari buruzkoa izan zen.

Erabakiak hartzeko guneetan Emakume eta gizonen arteko parte-hartze orekatua edozein gizarte demokratikoaren aurretiko baldintza da. Emakumeek eta gizonen tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako Europako gutunean horrelaxe baieztatzen da, eta tokiko gobernuei honakoa eskatzen zaie: beharrezko neurriak eta estrategiak hartzea, emakume eta gizonen ordezkariak eta parte-hartze orekatua sustatzeko erabakiak hartzen diren tokiko esparru guztietan.

Neurri horien artean, Eusko Legebiltzarrak onartutako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 legearen 23.artikuluak xedatzen duenez, “euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duren emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.” Aipatutako lege horretan, profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakundeen zuzendaritzako organoetan emakume eta gizonen presentzia orekatuari buruz hitz egiten da. Horretarako, zuzendaritzako organoetan emakumeen presentzia areagotzea ahalbidetzen duten neurrien arabera dagozkien diru-laguntzak egokitu ahal izango dituzte, eta ezin izango diete inolako laguntzarik eman hautaketa-prozesuan edo lan-jardunean sexua dela-eta bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.

Udalgintzan, EAEko udaleko %24.7an soilik daude emakume alkateak, eta eskualde herritarren %18.82 ordezkariak dute. 2015ean, alderdi politikoen %32.58an soilik aukeratu zituzten emakumeak hauteskunde-zerrendako zerrendaburu, eta, iraunkortasunari dagokionez, emakumeek abiadura motelagoan igo ohi dira mailaz, baita lidergoan denbora gutxiago iraun ere.



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

Euskadin gehiengoa duten sindikatuen artean, batean soilik dago emakume bat Idazkari nagusi; era berean, Euskadin egoitza duten erakunde finantzarioetako batean ere ez dago emakumezko lehendakariarik, eta erabakitze organo garrantzitsuetan %22.6 soilik dira emakumeak.

Elkarteetako emakume eta gizonen parte-hartzeari buruzko ehunekoei dagokienez, generoko ezberdintasun nabaririk izan ez arren, tradizioz rol femeninoa duten elkarteetan gehiago dira emakumeak: hezkuntza, erlijio, garapenerako lankidetzak eta gizarte laguntzako elkarteetan. Kirol, politika, sindikatu, lanbide, arte eta herritarren esparruko elkarteetan, aldiz, nagusitasun txikiagoa dute.

Bestalde, emakumeen elkarteak, oro har, aurrekontu eta eragin-gaitasun mugatua izan ohi dute udal politketan.

Egoera horren jakitun Arrasateko udalak Txosten europarreko gomendioak eta Emakumeek eta Gizonek Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunetik eratorritako konpromisoak onartzen ditu, baita emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betebeharrak ere, honako honetarako konpromisoa hartzeaz gain:

1. Kontsultarako eta erabakiak hartzeko organoetan emakume eta gizonen ordezkariak orekatua eta tokiko edozein organoetarako izendapenak bermatzea, betiere, sexu batek ere ez dezan izan %40tik beherako ordezkariak (emakumeen parte-hartzea sustatzeko egitura espezifikoetan izan ezik.)
2. Zenbait mekanismo ezartzea, hautatutako emakume ordezkariak eskumen-banaketa edo funtzio-esleipen estereotipatuaren edo bestelako diskriminazio- edo jazarpen-moduen eraginpean izatea eragozteko.
3. Parte-hartzea eta bizitza pertsonal eta familiarra uztartzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea, ordutegiaren eta lan-metodoen eta herritarrei laguntzeko sistemen bidez.
4. Sexuaren arabera bereizitako estatistikak jasotzea, bideratu eta publiko egitea, itxura sistematikoa emateko, tokiko esparruan emakumeen parte-hartzearen bilakaeraren jarraipena egin eta analisi horren arabera neurri zuzentzaileak ezartzeko.
5. Emakumeen parte-hartzea indartuko duten espazioak eta sareak sendotzea, hala nola, emakumeen etxeak, jabeak eskolak eta/edo udal berdintasuneko kontseiluak, eta, besteak beste, emakume hautetsientzako “Virginia Woolf Basqueskola” jabeak eskolak programan parte har dezaten ahalbidetzea.
6. Udalerriko emakumeen ahaldundetzea eta parte-hartze soziopolitikoaren sustapena ahalbidetzen duten ekintza espezifikoak ezartzea modu inklusiboan, batez ere, gutxiengoen taldeko kideak diren emakumeei dagokienez.
7. Udalerrian gauzatzen diren parte-hartze prozesuek genero ikuspegia kontuan hartzen dutela bermatzea.
8. Udaletako berdintasun sailetan eta gainerako udal sailetan neurri horiek gauzatu ahal izateko baliabide nahikoak jartzea.



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa indartzeko xedez, alderdi politikoei eskaera egite diegu konpromiso hauek beren gain hartu ditzaten eta beste eragile politiko eta sozialentzat ereduak diren neurriak har ditzaten.

Arrasateko udalbatzak ondokoa gaineratu nahi du:

1. Arrasateko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du Andredetan, emakumeen parte hartze soziopolitikorako udal plana, era parte hartzailean martxan jartzeko, Andredetan Berdintasun sailaren ardatz nagusietako bat bihurtzeko konpromisoarekin.
2. Arrasateko Osoko Bilkurak, Martxoak 8rako sindikatuek eta hainbat eragile feministek deitua duten emakumeen lanuzte internazionalari- 12.00etatik 12.30tara-babesa ematea “Nosotras Paramos” lemarekin.

J. L MERINO (IRABAZI):

Irabazi no va a participar en esta votación por una razón, por dos, la primera es que en la declaración institucional aprobada en el 2016 tenía 6 puntos, ahora en esta tienen 10 de los 6 puntos me parece que se ha cumplido solo el último que decía “el Pleno municipal del municipio de Arrasate llama a participar en las movilizaciones que convoquen las mujeres y grupos feministas. Ese es el único punto de los 6 que se ha cumplido.

Por lo tanto, no nos creemos absolutamente nada de lo que dice esto, aunque estemos de acuerdo, aunque la música nos suene muy bien y esto lo puede aprobar cualquiera nosotros también. No lo vamos a hacer, no lo vamos ni a votar.

Por otro lado, lo que pretendía ser una declaración institucional que se ha convertido ahora mismo en moción porque nuestro grupo así lo hicimos saber planteó otra moción la cual ha sido censurada en este ayuntamiento por parte de la Alcaldesa. Creo que tendrías que explicar o tendrías que explicar los motivos porque no has dejado que Irabazi presente su propia moción. Estamos ya más cerca de años atrás que mirar hacia delante.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziarik? Bueno nik zure galderari erantzunda zuk badakizu zein dan erantzuna eta da lehengo urteko martxoan ospatu zen plenoan eta Bozeramaile Batzordean esan nuela gaztelera hutsean iristen ziren mozioak ez nituela onartuko pentsatzen dudalako bueno ba mozioak gutxienez helebietan aurkeztea badala ez zinegotzien lana. Hori jakinda Irabazik kasu honetan emakumearen gaineko mozioa erdera hutsean aurkeztu zuenez ba ez da sartu gai ordenean. Hori izan da nire erantzuna eta ni zuri horrela komunikatu nizun aurreko ostiralean bertan. Beste interbentziarik ez baldin badago bozkatzera pasatuko gara. Bai Juan Luis

J.LMERINO (IRABAZI):



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

Resulta que en esta que hay leyes para todos también iremos al Ararteko con este tema también vamos a ir al Ararteko con este tema hay derechos también, hay derechos lingüísticos para todos y tenemos que estar aquí en condiciones iguales para trabajar de manera igual con las mismas condiciones no con las que tú impongas usted perdona usted. En este mismo pleno hay un montón de mociones, muchas se han presentado solo en euskara y han sido traducidas al castellano resulta que presentamos una que está en castellano y no se puede traducir al euskara ¿Qué pasa aquí? Esto es democracia, esto es la participación que quiere usted, la convivencia ¿de qué va?

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Juan Luis nik ez dizut sekula tonoz txarrean hitz egin eta zuk niri bai. Nik ez dizut sekula garrasi egin, nik ez dizut sekula tonoz txarrean hitz egin eta zuk niri bai, nik ez dituz sekula garrasi egin eta zuk niri bai, nik ez zaitut inoiz iraindu eta zuk ni bai eta ez daukat gehiago esaterik. Mozioa bozkatzera pasatuko gara.

Bertaratuak	20	
Aldeko botoak:	19	EAJ-PNV (8), EH-BILDU (7), PSE-EE (2) BALEIKE (2)
Kontrako botoak:		
Abstentzioak:	1	IRABAZI (1) (Ez du bozkatu)

Beraz, onartzen da.

10.- GAROÑAKO ZENTRAL NUKLEARRAREN BEHIN BETIKO DESMANTELAMENDUAREN ETA ENERGIA NUKLEARRAREN UZTE MAILAKATUAREN ALDE.

Arrasateko EHBILDU, BALEIKE eta IRABAZI-ARRASATE udal taldeek aurkezten duten mozioa datorren Udaltza bilkuran eztabaidatu eta onartzeko.

ZIOEN AZALPENA.

Euskal jendarteak arbuiatzen du Garoñako Zentral. Nuklearraren berririkiera eta bere itxiera eta eraispena galdegiten du hainbat arrazoiagatik:

1. Zentrala gure lurraldetik kilometro gutxira dago (Gasteiztik 43 km, Bilbotik 58 km, Arrasatetik 67 km eta Donostiatik 116 km hurrenez hurren) eta istripu batek ondorio lazarriak izango lituzke.



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

2. Lehen belaunaldiko zentral nuklearra da, zaharra (parke nuklearrean aintzinakoena) eta diseinatua izan zen 40 urte erabilgarriak gainditu dituen.
3. Diseinu akats ugari ditu. 1982an jada atzeman ziren hainbat arrakala erreaktorearen ontzian, urteetan ezkutuan mantendu zen arazo larria. Gaur egun arte hainbat istripu jazo dira (euretako bat 3. mailan kokatua 7ko eskala batean) eta geldialdi ugari, arrazoi kontaezinengatik.
4. Fukushimakoaren zentral bikia da, teknologia arriskutsu beraz hornitua, arrisku handikoa zoritxarrez frogatu ahal izan denez. Fukushima argindar gabe ordu gutxian desegln zen bide emanaz oso larria izan zen istripu nuklearrari.
5. Belgiar Segurtasun Nuklearraren Agentziak ebatzi du Fukushimaren modelo bereko 20 zentral nuklear (euren artean Garoña) itxi beharko liratekeela segurtasun neurri minimoak ez betetzeagatik.
6. Garoñako euskarri sistema ez da aproposa, Amerikako Estatu Batuetako Energia Atomikoaren Komisioaren iritziz. Ez du babes kupularik eta ontzi bikoitz honek erradiazio ihesa ekidingo zukeen istripu kasuan.
7. Zentral nuklearrean bertan den hondakin erradioaktiboen biltegia, 40 urteko bizi erabilgarrirako diseinatua, bete da praktikan eta zentralaren berrirekitezak beste biltegi berri bat eraikitzea ekarriko du.
8. Garoña Ebro ibaiaren sorburuan dago, penintsulako ibai garrantzitsuenetakoa, eta ezinbestekoa da milaka nekazari eta lehen sektoreko lanposturentzat.

Zentralak ez du hozte-sistema dorrerik eta horren ondorioz bere urak zuzenean Ebroa isurtzen ditu ibaiaren tenperatura media baino 10°C beroago, kutsadura termikoa eraginez eta ibaiari ingurugiro kalte nabarmenak eginez.

- Espainian instalaturiko potentzia gehiegizkoa da (existitzen den eskari gailurraren bikoitza). Garoñan instalaturiko potentzia (446' MW) argindar sistemaren sorkuntza potentzia osearen %0,4a da. Bere itxiera, beraz, guztiz asumigarria da ez duelako suposatzen ia gorabeherarik ez eskaintza energetikoan ez argindar horniduran eta hala frogatu da 2012an bere jarduera eten zuenetik.

Azaldutakoa azaldu arren, Endesa eta Iberdrola zentralaren jabeek Garoñaren bizi produktiboa 60 urte arte luzatu nahi dute, guztiz onartezina dena. Horretarako CSN (Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak) politizatu baten laguntza ordainezina dute, zeinak segurtasuna eta pertsonen zein ingurugiroaren babesa lehenetsi ordez enpresa hauen interes ekonomiko pribatuak defendatzen dituen. Honela zentralaren berrirekierari oniritzia ernaten dio, Endesa eta Iberdrolak CSNk berak baimena berritzeko inposaturiko segurtasun neurri gehigarrien inplementazioa burutu ez duen arren. Ezin da baztertu, era berean, azkenean zentralen itxiera exigitzen bazaie eman nahi zaizkien baimen berriek ezarritako data behin-betikoen aurretik, erabaki honek ez



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

duenik aterik zabalduko Espainian zentral nuklearren jabe diren enpresek mozkin extra batzuk ziurtatzeko Estatuari kalte ordainen erreklamazioak "lucro cesante" kontzeptupean aurkeztuz. Ez badira negozioareri aurreikuspenak gauzatzen, Castor gas biltegi porrot egindakoarekin gertatu den lez, arriskua dugu zentzugabeko luzapen nuklear hau herritarrok ordaintzeko gure zergen bidez.

Azpimarratu beharra dago instalazio nuklearren arriskugarritasunean, teknologia zaharkitua dute eta, arrisku bizia dira osasun eta ingurugiroarentzat eta arrisku oso larriak sor ditzakete ondorio latzekin biztanleria eta inguruarentzat.

Beharrezkoa da itxiera egutegi zorrotza osatzea eta zentral nuklear denak eraistea al bait arinen. Egutegi hau gainera lagundu behar da, gainera, plan alternatiboa eginaz energia nuklearren ordeztu energia berriztagarriak ezartzeko. Energia berriztagarriak garbiak, merkeak eta seguruak dira, tokiko enplegua sortzen dute eta autosufizientzia energetikoan .eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan laguntzen dute.

Era berean, planak burutu behar dira zentral nuklearrak diren eskualdeak dinamizatzeko, lana alternatibak eskainiko dituztenak eta lagunduko dutenak zonalde horien jarduera sozioekonomikoan. Dinamizazio plan hauen finantziario estatuak hartu behar du bere gain zentralen jabe diren enpresekin batera, zeinak aberastu diren argindar produkzioarekin euren gain hartu gabe hondakin erradioaktiboak tratatzeko kostuak.

Azaldutako guztiagatik, EHBILDU, BALEIKE eta IRABAZI-ARRASATE udal taldeek proposatzen dizkiote Arrasateko Udaleko udalbatzari ondorengo:

1. Arrasateko Udalak eskatzen dio Espainiako Gobernuari har ditzan beharrezko neurriak Santa María de Garoña zentral nuklearraren itxiera dekretatu eta behin betiko eraispena ahalbidetzeko.
- 2 .. Arrasateko Udalak galdegiten dio Espainiako Gobernuari bere egin dezala Santa María de Garoñako zentral nuklearraren berriz irekitzearekin .loturiko ezein erabakitik . eratorritako ezein erantzukizun penal eta politiko.
3. Arrasateko Udalak galdegiten dio Espainiako Gobernuari egutegi zorrotza gauzatzeko zentral nuklear guztien itxiera eta eraispenaren hastapenarekin, instalazio nuklearrak energia berriztagarrien instalazioengatik ordezkatzeko dituen plan alternatiboa burutzuz.
4. Arrasateko Udalak galdegiten dio Espainiako Gobernuari koordina ditzan lurralde administrazioekin zentral nuklearren itxierak eragindako eskualdeen dinamizazio planak, Estatuako Aurrekontu Orokorrek eta zentral nuklearren jabe diren enpresek kofinantzaturik.
5. Arrasateko Udalak galdegiten dio Eusko Jaurlaritzari adieraztera, egoki den lekuan, bere arbuio erabatekoa Garoñako zentral nuklearraren berririkiera baimenari.



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

6. Arrasateko Udalak izenpetzen du "Garoñarekin moztu" web gunean jasotzen den manifestua eta ondorengo estekan ageri den a: <http://www.garonarekinmoztu.net/es/rmanifesto>
7. Arrasateko Udala konprometitzen da "Garoñarekin moztu" kanpaina publizitatzera bere web orrian, herritargoaren eskura jarriz manifestura sarbide den esteka gura duen pertsona orok sina dezan.
8. Arrasateko Udala konprometitzen da mural bat egitera leku ikusgarri batean non ezartzen diren distantziak Arrasate eta Garoña, Fukushima eta Chernobyl artean.
- 9 .. Arrasateko Udala konprometitzen da jatorri berriztagarriko energiaren kontratazioan aurrerapausoak ematera eta ikertzera sortatan eginiko argindar hornikuntzaren zatikapen aukera, %100ean. jatorri berriztagarriko energia berdea eskaintzen duten enpresa txiki komertzializatzaileekin kontratazioa errazteko, berriki Bartzelonako Udalak egin duen eran.
10. Akordion honen berri emango zaio Espainiar Gobernuari, Energia Ministeritzari eta Diputatuen Kongresuko zein Eusko Jaurlaritzako talde parlamentario guztiei.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Interbentziorik?

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Bai ikusten dezuten bezala oposizioko taldeen mozioa da eta nik aurreko punturen batetan Eneko Barberena jaunak eskatu duen bezala mahai gainean geratzeko puntu bat guk ere hori eskatzera gatoz mozio honekin. Badakizute Bozeramaile Batzordean guk ere gai honen inguruan mozio bat geneukala, harridura zan gure aldetik noski Garoña itxita nahi dugu, Garoña ez dugu nahi baina guk nahi genuena zan adostasunean mozio bakarra adierazpen bat ateratzea ostiralean egin genuen bilera bat astelehenean ere berriz ere elkartu ginen eta bertan saiatu ginen ea adostasun bat lortzea posible zen badirudi Irabaziren aldetik etorri dela mozio hau eta ez zeunden Merino jauna ez zeunden zu bileran besteak oposizioko taldeak ez zuten nahi erabakirik hartzea eta guk adierazpen ofizial bat Garoñaren aurka Garoña itxi nahi dugu baina nahi duguna da adierazpen ofizial bat, adierazpen bat guztion arteko adostasunen joan dadin eta horregatik eskatzen dizuegu gu prest gaude mahai gainean utzi eta hurrengoko osoko bilkurarako posible dugun adostasunean mozioa bat mahai gainera edo adierazpen bat mahai gainera ekartzea hori da gure eskaera.

J.L MERINO (IRABAZI):

Bueno yo no puedo aceptar esa propuesta por parte del PNV. El PNV hace bien poco hace unos meses presentamos aquí una moción sobre la laicidad de este ayuntamiento de esta institución y se trajo otra propuesta alternativa y se votaron las dos aquí tenéis otra moción vuestra ¿no? El PNV no del gobierno del PNV haberla presentado el en orden del día y haberse votado si no hay ningún problema ¿porque se tiene que dejar encima de la mesa?



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Barkatu banekien gai hori mahai gainera ekarriko zenuela zuk dinozun mozio hortan gaia berdina zan baina ikuspuntua guztiz desberdina zan geneukan ikuspuntu desberdinak alde batera pentsatzen zendun zuk eta guk beste aldera es ke honetan guztiz ados gaude, guztiz ados gaude baina eskatzen dizuegu utz gaitzazue mesedez mozio adostasunean amankomun bat egiten hori eskatzen dugu. Adostasunean ez dugu eduki zurekin adosteko betarik, denborarik eskatzen dugu mesedez utz dezagun mahia gainean apirileko datorren osoko bilkuran ekarri degun besterik ez.

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Egia esan imajinatzen dut hemendik urte batzuetara akta hau irakurtzea okurriduko jakonai apur bat flipau egin dauela hirurekin ez? ze oso gauza internoak dira gure taldeen arteko funtzionamendua, gure adostasunak eta gure desadostasunak ez? Gainera, gu atzo komentatzen bagenuen beldurra egun hontan Garoñari buruz baino beste mila gairi buruz hitz egiten ginela ze Garoña arrisku handia da Arrasatearrentzat distantziagatik 67 kmra dago, zaharra delako, arazo asko dituelako eta Fukushima zentrala istripu hori denboran gertu dugulako ez?

Egia esan, egia da ostirala eta asteleheneko batzarrak ziren gaur egoera honetara ez iristeko zeren eta egia bada denok ados gaudela bueno hor ez litzateke arazorik egon behar. Kontua da mozioen eta hor Juan Luisek aipatu du ze mozioarekin iritsi ahal gara adostasunera? Zerekin ez? Zerekin bai? Hor badago gai bat lantzeko nahiko potentia dena ze a priori ezin duzu jakin talde baten adostasun manifestua noiz egon den eta noiz ez Bozeramale batzordea iristen den arte.

Guk egia esan nahi genuena zen Garoñari buruz hitz egitea eta nahi genuena zen zentral nuklear horrek gugan duen arriskugarritasunari buruz hitz egitea ez? Presa dago eta aldi berean ez dago, hau da, presa dago zentral hori ahalik eta azkarren itxi behar delako guk ez dugu uste egun bat gehiago egon beharko zenik hor arriskua sortzeko aukera eta gero bestalde, hurrengo plenorako adostasun batera iritsi bagaitezke ba hobe ez? Baina noski hau izan beharko litzateke prozedura bat mozio guztiekin hitz egitekoa ze azkenean Juan Luisek aipatu duen adibidea bai ikuspegi desberdinak ziren baina kasualitatea izan zen gai berari buruzko bi mozio aldi berean eta zentzu hortan egia esan herritarrek ere harrizko dira gure prozedurekin askotan ez? Orduan bueno guk atzeratzea ikusten dugu baina beti ere Garoñari buruz hitz egitea baldin bada gai printzipala eta beste mozioei begira ere antzeko jardunbide hartzen dou.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik?

Bueno ez dakit mozioa hiru alderdik aurkeztu duzue alderdi batek bai esaten du hurrengo plenorako uzten duela bueno nahiko genuke jakin beste bi alderdiok zer esaten duzuen ze klaro mozioa hiru alderdiok aurkeztu duzue Irabazi, Baleike eta EH-Bilduk.

J.L MERINO (IRABAZI):



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

Estoy de acuerdo Eneko en que lo importante es Garoña el peligro que conlleva ello es verdad que hemos presentado has empezado a hablar de que esta moción la ha presentado solo la oposición bueno en principio la oposición a Garoña. No voy a entrar, no voy a hacer sangre porque veo que el PNV como ya se ha dado cuenta por fin de lo peligroso que es la energía atómica, no así hace unos años decía que Lemoniz garantizaría la independencia energética de Euskadi, el PNV impulsa el alargamiento de la vida de las centrales nucleares dicho por Josu Erkoreka bueno yo me alegro de que hayáis entrado ya habéis comprendido ya el problema y en base a eso aceptaré de mala gana consensuar una.

BOZKETA MAHAI GAINEAN UZTEKO

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bueno mozioa atzeratzea. Igor barkatu.

I.URIZAR (BALEIKE):

Alde batetik esatea ez dugula guztiz ulertzen Anuskak esan daben bezala guztiz ados egonda mozioa aurrera atera nahiz ez izatea baina bueno ez dugu inongo arazorik jarriko mozioa atzeratzeko eta guztion artean adostasun batera heltzeko.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bueno orduan bozkatzera pasatuko gara.

Bertaratuak	20	
Aldeko botoak:	19	EAJ-PNV (8), EH-BILDU (7), PSE-EE (2) BALEIKE (2)
Kontrako botoak:		
Abstentzioak:	1	IRABAZI (1)

Puntua mahai gainean geratzea onartzen da.

Beraz, onartzen da eta Garoñako mozioa hurrengo plenora ekarriko dugu.

11.-DISPERTSIOAREN AURKA, EH-BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA. (2017SMOZ0012)

PSE-EE udal taldeko bi zinegotzi bertaratuak bilkura utzi dute (ikus bertaratzeko eta irteeren atala)



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

PREMIN SAMPEDRO EUSKAL PRESO POLITIKOAREN SENIDEEI ELKARTASUNA ERAKUTSIZ ETA DISPERSIO POLITIKA AMAITZEKO ESKATUZ

Arrasateko EH BILDU udal taldeak aurkezten duen mozioa Udalbatzaren hurrengo bilkuran eztabaidatu eta onartzeko

ZIOEN AZALPENA

Azken urteotan, Arrasateko herriak eta bertoko Udalbatzak hainbatetan arbuiatu dute dispersio politika, euskal presoiei eta euren senideei sortzen dizkien arriskuengatik eta bidegabekeriagatik. Hori gutxi balitz, ETA erakundeak bere aktibitatea bertan behera utzita ere, indarrean dirau dispersioan eta bakartzean oinarritutako espetxe politikak.

Azken hamarkadatan istripu ugari bizi izan dituzte senideek espetxera bidean frantziar eta espainiar errepideetan eta azken istripua Premin Sampedro arrasateko presoaren senideek bizi izan zuten otsailaren 11n. Bisita egin ahal izan zuten arren, dispersioak eragindako arrisku egoera pertsonal eta ekonomikoa euren azalean sufritu zuten.

Azaldutako guztiagatik, EH BILDU udal taldeak proposatzen dizkio Arrasateko Udaleko Udalbatzari ondorengo:

AKORDIOAK

1. Arrasateko Udalak eskatzen die Espainiako eta Frantziako gobernuei bertan behera uzteko dispersio politika eta Euskal Herrira ekar ditzatela euskal preso politikoak. Gobernuoi dagokion moduan jakinaraziko zaie Udalbatzaren akordioa.
2. Arrasateko Udalak bere elkartasuna adierazten die Premin Sampedroren senide eta lagunei.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Interbentzionik?

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Augusto Monterroso Nikaraguako idazleak badu ipuin labur bat dela “Cuando desperté el dinosaurio todavía seguía allí”, dinosauroa hor dago eta gainera dinosauro hori bortitza da espetxeetan diren preso gaixoen egoera gero eta larriagoa da Ibon Iparragirre, Aitzol Gogorza, Oier Gomez beraien egoera egunetik egunera okertzen ari da beraien bizitza jokoan dute eta guk eskatzen duguna da Rodriguez Galindorekin egon den tratua bera, hau da, osasuna kontuan hartzea baina ez da bakarrik presoaren egoera okertzen ari dena, astero dago ruleta ruso makabro bat eta hori da senideek sufritu behar dutena errepidean ez. Dispersioari buruz egia esan, seguruenik mahai eta aulki hauek denetik entzun dute



Esp.-kodea: 2017SAPL0002

urteak goaz Arrasateko herria, Arrasateko udalbatza, dispersioa salatuz eta arazoak hortxe jarraitzen du eta gainera krudelkeri tinte batzuk hartzen ari da ez?

